



Heriotza egunerokoan...

Maleta didaktikoa

IRAKASLEAREN GIDA



Erakunde babesleak / Instituciones socias:

Patrono pribatuak / Patronos privados:



1. Sarrera

Hezkuntza da gure gizartean norbanakoaren prestakuntza integralerako dugun tresna. Horren bitartez, gizakia pertsona hobea izatera irits daiteke, bere gaitasunak garatu ditzake eta bere zalantza existentsial eta pertsonalei erantzunak bilatu. Horrela, gizarte justuago eta demokratikoago bat sortzen laguntzen dugu, gizabanako kontzienteagoak eta beren ingurune sozial, kultural eta naturalarekin konprometituagoak.

Heriotzaren hezkuntzaren eta gizartearen normalizazioa lagungarria izan daiteke pertsonaren prestakuntza orekatuagoa, hobea eta gizatiarragoa lortzeko. Museoko bildumen bidez, aurrez aurre begiratu ahal diogu heriotzari, eta gure existentsiaren mugei buruz hausnartu. Gure existentsia eta gure bizitza norberaren eta besteen bizitzarekiko errespetuan oinarritzen dira, eta horrek benetako zentzua ematen dio subjektuaren garapenari.

Dokumentu honen helburua da museoko erakusketa iraunkorrari begira ikasmaila bakoitzera bideratutako proposamen didaktiko ezberdinak planteatzea heriotzaren gaiaren lanketa egin ahal izateko erakusketan zein eskolan.

Gai hau curriculum-ean txertatua ez dagoen arren, lantzeko beharra ikusten dugu, izan ere, M. de Montaignek zioen bezala *“Gizakiari hiltzen irakasten diona, aldi berean, bizitzen irakasten ari zaio”*.

Heriotzaren gaia haurrek egiten duten antzera jorratzea proposatzen dizuegu: naturaltasunez. Zergatik? Gure kulturak ezkutatzeko duen joera orekatzeko.

Tabuaren eraginez eta gure haurrak ezbehar eta zoritxarretik “babestu” nahian, helduok era desegokian erantzuten dugu gezurra, ezbaia, eta batzutan, isiltasunaren bitartez. Eta guzti honek ez dio inori onik egiten. Izan ere, heriotza aurrean dugunean batzuen eta besteen beharra dugu. Horregatik, familian ematen ari den edozein gertakaritan kontuan har gaitzaten nahi dugu, gure adina edozein izanda ere. Une hain delikatu eta berezietan haurrekin “egoten” jakitea benetan da garrantzitsua. Eta ez dakigula pentsatzen badugu, haurtzaro eta nerabetasunetik ikas dezagun.

Haurrek heriotzaren inguruan bere galderak egiten dizkiote euren buruari, txikiak direnean bere ama hilko ote den galdegiten diote ezer gertatu ez den arren. Beraiek, berez, bizitzaren eta heriotzaren ikertzaileak dira. Gu ere izan ginen behin eta elkarrekin, beraiengandik gertu, berezko ikertzaileak izaten jarraitu dezakegu.

Honetan laguntzeko, ezaguera elkarrekin eraikitzeko, mitoen eta beldurren dekonstrukzioa bideratzeko, San Telmo Museoak, Gizarte Museoa den heinean, hezkuntza komunitatean eta gizartearengan heriotzaren gaiaren inguruan hausnarketa sustatu nahi du material didaktiko honen bitartez. Helburu honekin, haur eta gazteekin eztabaida piztu nahi dugu heriotzaren inguruko gure bizipenen inguruan prozesu partehartzaileak erabiliz ondarea bidelagun dugula.

Honetarako museoko erakusketa iraunkorreko hainbat objektu izango ditugu ikusgai.

Ondare honetaz goatzera gonbidatzen zaituztegu eta proposatzen dizkizuegun jardueretan parte hartzera.

San Telmo Museotik eskertu nahi genuke proposamen hauen garapenerako izan dugun lantaldearen aholkularitza eta laguntza: Donostiako Berritzegunea, Bidegin elkartea, María Sánchez irakasle izandakoa eta egun museoko gida boluntarioa, eta gai honetan aditua den Mar Cortinaren elkarlana ere bai.

Mila esker bidelagun izateagatik!

San Telmo Museoko Hezkuntza Atala

2. Helburuak

Orokorrak

- Ikasleak eta familiak heriotzaren gaiaren inguruan **sentsibilizatzea** eta **hausnartzea**.
- Museoen, kultur- eta hezkuntza-erakundeen arteko **lankidetz**a sustatzea.
- Ikasleei ondare artistiko, historiko eta kulturalaren aberastasuna **ezagutzera ematea** modu didaktiko eta interaktiboan.
- Ondare artistiko, historiko eta kulturalaren **zaintzearen premiaz jabetzea** eta bereziki, gida honetaz aztertzen diren objektuak.
- Heriotzarekin erlazionatutako ondare materiala eta immaterialaren zuzeneko **azterketa** bultzatzea.
- Euskal gizartean eta kulturaren topa ditzakegun hileta-ondarea eta ohitura ezberdinen inguruan **interesa piztea**.
- Museo, ikastetxe, familia eta abarren arteko informazio eta esperientzien **trukea ahalbidetzea**.
- **Talde-lana sustatzea**.

Zehatzak

- Gaia eskolan ikasleekin jorratu eta landu ondoren, eskolan egindako lanen **emaitzak eskolan azaldu**. Era honetan, gaiari buruz egindako hausnarketak gurasoekin zein beste ikasleekin **partekatu** ahal izango ditugu eta horrela, gizarte mailan tabu moduan ikusten den gai honen inguruan **hausnarketa** sustatu eskolan eta hezkuntza komunitatean.
- Heriotzaren gaiaren lanketan eraginkorrak izateko hainbat ariketa eta gairen lanketa **etxean, familien testuinguruan, landu** eta hauen emaitzak eskolara eraman bueltan.
- Eskoletan landutako **materialak etorkizuneko** erabiltzaileentzat **erabilgarriak** izatea. Horretarako, sortutako materiala google driven partekatuko dugu (stmheriotza@gmail.com, klabea: Donostia2019).

3. Hartzaileak

Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Helduen Hezkuntza.

4. Materialak

Erakusketan zehar bisita egiteko maleta didaktikoa erabiliko dugu. Maleta honetan material didaktikoa izango dugu eskuragarri bidaia egiteko bizitzatik heriotzera eta alderantziz:

Elementu didaktiko hauek topatuko ditugu:

- Irakaslearen gida
- Baliabideen gida
- USBa maletaren informazio guztiarekin
- "Bizitzaz beterik, heriotzaz aserik" liburuxka
- Euskal erritualen inguruko puzzlea
- Hilari bat nola egiten den ikasteko posterra eta kromoak
- Hil-oihala, zamaia, argizaiola eta ogi baten artisau-erreprodukzioa
- Jarduera guztiak gutun-azalen arabera ordenatuta:
 - STM bizirik XVI.mendetik
 - Oroitzeko harria
 - Argi eta ohol
 - Hil eta harri
 - Hamarrena eta salbazioa
 - Dena beltz
 - Hil eta oihal

5. Hezkuntza proposamena

Gaia lantzeko hiru fase proposatzen dizkizuegu:

5.1. Eskolan, museora etorri aurretik.

5.2. Museoan, bisita gidatua eta tailerra.

5.3. Eskolan, museora etorri ondoren.

Hau kontuan izanik, jarraian zehaztuko dugu fase bakoitzean zer egin.

ESKOLAN	MUSEOAN		ESKOLAN
Etorri aurretik	Bisita gidatua	Tailerra	Etorri ondoren
<ul style="list-style-type: none"> Abestia: Xoxo beltza. (2. eranskina) Ipuina / Literatura-testua (3. eranskina) Filmak / Marrazki bizidunak. (4. eranskina) Bizitzaren zikloak naturan. (5. eranskina) Artelan baten azterketa (6. eranskina) Animazioa. (7. eranskina) Hileta-errituak I. Testigantzak (8. Eranskina) Hileta-errituak II. Hilarriak eta argizaiolak (9. Eranskina) 	<ul style="list-style-type: none"> STM bizirik XVI. mendetik. (11. eranskina) Oroitzeko harria. (12. eranskina) Argi eta ohol. (13. eranskina) Hil eta harri. (14. eranskina) Hamarrena eta salbazioa. (15. eranskina) Dena beltz. (16. eranskina) Hil eta oiha. (17. eranskina) 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Erritualen azterketa. Puzzlearen muntaia edo Antzespina: erritual baten sormena eta taldean partekatzea. (18. eranskina) Hilarriak egitea: asmatu prozesua. Kromoak eta posterra. (19. Eranskina) Hilarria-pizza: sortu zure hilarria. (20. Eranskina) Argizaiola: sortu zurea. (21. Eranskina) Ba al zenekien? jokoak (22. Eranskina) Bizi-testamentua-karta-jokoak (23. Eranskina) Olerkien irakurketa eta idazketa (24. Eranskina) 	<ul style="list-style-type: none"> Hileta-murala: euskal hileta-objektuetatik abiatuta murala sortu (25. Eranskina) Heriotza da gai... (26. Eranskina)

Taula hau ikusgai duzue Baliabide didaktikoen koadernoan. **1. eranskina**, 3. orria.

Bertan azaldutako jarduerak orientagarriak dira. Irakasle bakoitzak egokiena deritzona aukeratu dezan.

5.1. Eskolan

5.1. Eskolan, museora etorri aurretik.

Heriotzaren gaien barneratzen hasteko baliabide ezberdinak erabil ditzakegu:

1. **Abestiak.** Adibidez: "Xoxo beltza" Mikel Laboa. (ikus **2. eranskina**).
 2. **Ipuina / Literatura-testua.** (ikus **3. eranskina**).
 3. **Filmak / Marrazki bizidunak** (ikus **4. eranskina**).
 4. **Bizitzaren zikloak naturan** (ikus **5. eranskina**).
 5. **Artelan baten azterketa: koadro, eskultura, instalazioa...** Adibidea: "Aria da Capo" (ikus **6. eranskina**).
 6. **Animazioa:** "Bizia eta Heriotza izeneko bi andre zaharren bidaia". (ikus **7. eranskina**).
 7. **Hileta-errituak I (Ikus-entzunezkoa):** entzun testigantza ezberdinak eta ondoren ikasleei aitona-amonei hauen inguruan galdeketa egiteko eskatu. (ikus **8. eranskina**).
 8. **Hileta-errituak II (Ikus-entzunezkoa):** ikus-entzunezkoa ikusi eta galderak erantzun. (ikus **9. eranskina**).
-

5.2. Museoan

5.2.1- BISITA GIDATUA

5.2. Museoan, bisita gidatua.

Museoko erakusketa iraunkorren topa ditzakegun objektu ezberdinen bitartez museoko hileta-ondarea ezagutuko dugu eta heriotzaren gaiaren inguruan ditugun sentimenduak eta bizipenak guztion artean partekatuko ditugu.

Honetarako ibilbide bat jarraituko dugu plano baten laguntzarekin. **10. eranskina**

Hauxe da aurreikusitako denbora: Bisita: 60 min eta Tailerra: 60 min.

Bisitari zehar aurreikusitako jarduerak:

- STM bizirik XVI.mendetik
- Oroitzeko harria
- Argi eta ohol
- Hil eta harria
- Hamarrena eta salbazioa
- Dena beltz
- Hil eta oihal

Hasieran esan dugun bezala, guztira zazpi jarduera planteatzen diren arren, ez ditugu guztiak egin beharrik. Taldearen arduradunak zer egin aukera dezake.

5.2.1. BISITA GIDATUA

SARRERA:

HALLEAN (LURREAN ESERITA) (5 MIN.)

Gaurko bisita honen bitartez euskal gizartean heriotzarekin erlazionatuta erabili izan diren objektu eta ohitura ezberdinak ezagutuko ditugu.

(Aldez aurretik gaia landu ez bada erabiltzeko jarraian datorren azalpen hau).

Historian zehar gure gizartean gauza ezberdinak egiten ziren norbait hiltzean. Adibidez: hildakoaren etxera joaten ziren hildakoren familiarekin egotera, familia-bazkaria egiten zen, loreak eskaintzen zitzaizkion hildakoari, ogia ere bai eta argia...

Orain hasiko dugun bisita honetan zehar Euskal gizartean heriotza nola bizi izan den ezagutu ahal izango dugu San Museoko bildumetako objektu ezberdinen bitartez.

Baina objektu hauek aztertu baino lehen, museoaren historiara hurbildu gaitzake.

1. GELDIUNEA:

STM BIZIRIK XVI.MENDETIK (11. ERANSKINA).

Ibilbide honi hasiera eman baino lehen, era laburrean, San Telmo museoaren historia ezagutuko dugu.

San Telmo Museoak ehun urte baino gehiago ditu eta XVI. mendeko dominikar komentu batean dago kokatua. Garai horretan familia aberatsen artean ohikoa zen hil ondoren, komentuetan lurperatuak izatea.

Informazio osagarria

Fundatzaileek San Telmo Museoa eraiki zuten "Panteon monumentu" bezala beraien hilotzak bertan lurperatuak izan zitezten. Beraz, bere horretan, museoaren eraikina bera da hileta-monumentua edo hileta-eraikina.

Garai horretan, Dominikar monjeek Donostian komentua eraikitzeke nahia zuten. Alonso de Idiaquez eta Gracia de Olazabalek, garaiko familia dirudunen kideak, diru-laguntza eman zieten komentua eraikitzeke bertan beraien hilobia egiteko baldintzarekin.

Fundatzaileen hilobiaren azterketa

Orain hemen ikusten ditugun bi pertsonaien irudikapena aztertu egingo dugu:

1- Alonso de Idiaquez

Alonso de Idiaquez garaiko errege zenaren, Carlos V.-ren, idazkaria eta konfiantzazko gizona zen. Ondoan ikusten dugun emakumea ordea, Gracia de Olazabal da, bere emaztea. Hilobian dagoen gizonetzkoaren irudikapena xehetasunez beteta dago aurpegiaren detaileetan ikusi dezakegun bezala eta jantzien arabera ere bai: kapa, armadura eta ezpata gainean dituela.

2- Gracia de Olazabal

Gracia de Olazabalen irudikapena erabat ezberdina da. Bere itxura serorarena da eta aurpegiak ez du denboraren iragatearen islarik azaltzen. Emakume gaztea eta liraina dirudi garaiko eredu jarraikiz. Emakumearengan bere aurpegiaren itxuran ez da arretarik jartzen, ez eta gorputzean ere. Garai honetan, XVI. mendean, emakumearen bizitza gizonaren arabera zelako, hau da, emakumeek ez zuten gizarte mailan gizonen garrantzia eta erabakiak hartzeko eskubiderik. Horregatik, ez zen bere irudikapenean arretarik jarri eta bere aurpegia garaiko emakumeen edertasunaren idealizazio hutsa da.

Galderen proposamena:

- Zer da bietan atentzioa deitzen diguna?
- Nola daude jantzita?
- Zein da bakoitzaren aurpegiak islatzen diguna? Poza, tristura, lasaitasuna, haserrea...
- Donostia itsasgizonen herria zen eta horregatik, monjeek San Telmo izena jarri zioten komentuari. San Telmo baita itsasgizonak babesten dituen santua eta horretarako du eskuan kandela eta itsasontzia.

3- Santa Korda

Hauxe zen jatorrizko komentuaen sarrera, San Telmo ikografikoki, itsasgizonen zaindaria izanik, ezkerreko eskuan itsasontzia darama eta eskubikoan kandela. Bi elementu hauen bitartez, itsasoan galdutako belauntziak gidatu zitezkeen ustea zegoen.

4- San Telmoren koadroa

San Telmo ikografikoki, itsasgizonen zaindaria izanik, ezkerreko eskuan itsasontzia darama eta eskubikoan kandela. Bi elementu hauen bitartez, itsasoan galdutako belauntziak gidatu zitezkeen ustea zegoen.

5.- Elizaren argazkia

Museoa komentua izan zen baina XIX.mendean monjeak komentutik bota zituzten eta militarrek sartu ziren bertan. Argazki honetan polboraz betetako bidoiak ikus ditzakegu.

6.- Klaustro

Komentua kuartel militarra izan zen eta horren lekuko dugu klaustroan zeuden kanoiak.

7.- San Telmo zaharra

XX. mendean, eraikina Donostiako udalak erosi zuen eta 1.932. urtean museo bihurtzea erabaki zuen.

8- Museoa berriaren fatxada

Egun, museoak euskal gizartearen bilakaera erakusten digu bere bildumen bitartez Historiaurretik XX. menderarte.

2. GELDIUNEA:

OROITZEKO HARRIA. (12. ERANSKINA)

Oroitarría hitza bera aztertuz, objektu hau zertarako erabiltzen den ohartuko gara: oroi(-tu):gogoratu eta Arri:-harría. Norbaiten oroimenez edo norbait oroitzeko gizakiak sortutako harriak dira.

Museoko bildumetan 133 oroitarrí ditugu eta areto honetan 23 ikusgai. Hauen artean 7 landuko ditugu eta zeinen omenez egin ziren jakingo dugu. Oroitarríaren erabilpena gaur egun arte mantendu da gure gizartean. Antzinean goi mailako pertsonentzat bakarrik egiten ziren eta gaur egun ordea, bere erabilpena zabaldu da.

Orain elizaren sarreraren aurrean eseriko gara eta guztion artean aukeratutako 7 oroitarrí aztertuko ditugu. Taldekideen artean irakurriko ditugu eta galderak egin.

Aztertzeo informazioa: lanbidea, sexua, gizarte-egoera, bizitzako gertakariak, e.a.

3. GELDIUNEA:

ARGI ETA OHOL. (13. ERANSKINA)

Euskal gizartean hildako senide bat gogorarazteko, beste gauzen artean, elizan kandelak eta argizaiolak piztu eta elizako hilobian argizaiolak jartzen ziren.

Argizaiolak, hitzak dioen bezala, elkartutako hiru hitz dira: argi(z)-, ari (hari) eta -ola (ohola), hau da, haria duen eta argia ematen duen ohola da.

(Hau azaltzeko baliabideen koadernoan dagoen baserriaren ilustrazioa erabiliko dugu. Ikus **18 eranskina**).

Antzinean, baserrietan familiako kideak baserriaren lur sailetan lurperatzen ziren.

Bataiatu gabe hildako haurrak teila artean ehorzten ziren baserriaren teilatuaren babespean. XIII. mendetik aurrera ehorzketak elizan egiten hasi ziren. Baserri bakoitzak bere hilobia zuen elizaren barruan, eta familia bakoitzak bere argizaiola zuen.

Baserriko etxekoandrea elizara joaten zen hildako familiakideen alde otoitz egitera. Etxekoandrea elizan bere familiak zuen hilobiaren gainean jartzen zen belauniko "jarleku"-aren gainean (aulki moduko altzaria). Aldi berean, elizako hilobian zapi bat jartzen zuen, "zamaua", eta horren gainean, argizaria piztuta, otoitz egiten zuen. Familiako hildakoentzako eskaintza moduan ogi birilak edo "olatak" ipintzen zituen. Argizaiolaren sugarrak sukaldeko sua adierazten zuen eta horrela, hildakoen eta bizirik zeudenen artean lotura mantentzen zuen.

XIX. mendetik aurrera ehorzketak hilerrietan egiten hasi zirenean, argizaiola erabiltzeari utzi zioten.

Egun, Amezketan bakarrik mantendu da ohitura hau Santu guztien egunean, Azaroak 1ean.

Denbora tarteaz utziko dugu guztion artean argizaiolaz hitzegiteko.

Galderen proposamena:

- Forma antromorfoa dutela diote adituek, hau da, gizakiarena. Zertan antzematen duzue?
- Bilatu argi eta garbi gizaki baten aurpegia irudikatzen duen bat.
- Eta sinpleena den bat. Nolakoa da?
- Eta gurutzea duen bat?
- Eta lore bat duena?
- Argizaiolen forma berezia da, zein beste objektuekin lotzen duzu?
- Zer forma emango zenioke zuk objektu horri, familiako hildakoen alde otoitz egiteko taula bat izanik.
- Zein da, zure ustez, hainbeste argizaiola desberdin aurkitzeko arrazoa?
- Azter itzazu argizaioletan ikusten dituzun ikurrak. Zein motatakoak dira?

4. GELDIUNEA: HIL ETA HARRI. (14. ERANSKINA)

Hilarriak, hitzak dioen bezala, elkartutako bi hitz dira: hil- eta -arri (harri). Hortaz, hildakoei eskainitako harriak dira, beraien omenez eginak.

Orain, aurrean ditugula, beraien forma, tamaina, marrazkiak, e.a. aztertuko ditugu.

Hilarriek marrazki ugari izaten dituzte eta, askotan, konplikatua dira. Horregatik, ez da erraza bereizten zein den marrazki nagusia. Batzuetan, izarrak, landareak, animaliak, pertsonak, lanabesak eta antzeko irudiak ikus ditzakegu, beste batzutan ordea, irudi batzuk zer diren ere ez dakigu.

Hilarriak hainbat tokitatik datoz. Gehienak hilobiak seinatzeko dira baina beste batzuk mendian aurkitu dira, bide zaharren ertzean. Norbait ezustean hiltzen zenean, ezbeharrez, bihotzak jota..., hantxe bertan kokatu ohi zen hilarri bat, jendeak, pasatzerakoan, hildakoa gogora zezan.

Eta badakigu erromatarren aurretik ere bazeudela hilarriak. Hilarriak oso aspaldikoak dira eta mundu osoan zehar aurkitzen dira. Euskal Herria da hilarri gehien topatu diren tokietariko bat.

Kristautasunarekin batera, hilarrietan gurutzeak agertu ziren.

Galderen proposamena:

- Zein forma dute biribila ala karratua?
- Guztiak al dira tamaina berekoak?
- Irudi berdinak dituzte denak? Zein irudi ikusten dituzu? Loreak, gurutzeak, animaliak? Zenbat gehiago?
- Gaur egun ere, bideen ertzetan hilarriak ikusten dira. Ikusi al duzue inoiz mendian, edo errepide baten alboan adibidez, plakarik, gurutzerik, lore-sortaren bat, istripu bat izandako tokian?

Informazio osagarria

Euskal Herrian badira, hilarriak baino lehen, hildakoei eskainiako beste hileta-monumentuak (norbaiten oroimenez eraikitako zerbait). Ikusi al duzue noizbait mendian horrelakorik? Trikuharriak, harrespilak eta zutarriak. Guzti hauek dira Historiaurretik lehen gizakiak egindako gauzak norbaiten edo talde baten oroimenez.

- TRIKUHARRIAK. TXABOLAKOA ADIBIDEZ, GUARDIA, ARABA

Sorginaren txabolako trikuharria Euskadiko garrantzitsuenetako bat da; eta seguruenik handiena eta ondoen kontserbatuena dagoena.

1935. urtean aurkitu zen. Ganbara irudi poligonal bat deskribatzen duten 9 xaflak osatzen dute. Galeria 5 xaflaz osatua dago ixten duenaz gain. Teilatu-xafla hirutan zatitu zen, baina zaharberritu ondoren, bere jatorrizko kokapenak suposatzen duen lekuan kokatu zen.

Indusketetan objektu ugari aurkitu ziren, giza aztarnaz gain: ardatzak, zeramika piezak, uztaiak ...

Jaien bezperan, abuztuko Ama Birjinaren inguruan, akelarre bat ospatzen da trikuharriaren inguruan.

http://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/descarga_publicaciones/es_descarga/adjuntos/Arkeoikuska1989.pdf

<https://web.araba.eus/eu/foru-aldundia/erakundea/historia/kultura-ondare-oparoa>

- HARRESPILAK. MENDILUZEKOA ADIBIDEZ, AGURAIN, ARABA

Mendiluzeko harrespila 1983an aurkitu zuten Legaireko zelaietan, Entzia mendilerroan, eta handik urtebetera egin zituen indusketa-lanak Jose Ignacio Vegas Aramburu arkeologoak.

Harri txikiz egindako zirkulu honetan lau menhir handi nabarmentzen dira. Barruan, hezur eta ikatz hondakinak zituen hilobi angeluzuzen bat aurkitu zuten.

2.700 urte inguru ditu, eta inguruko bizilagunak bertan ehortzi zituzten.

<https://turismoa.euskadi.eus/eu/kultur-ondarea/mendiluzeko-harrespila/aa30-12375/eu/>

- ZUTARRIA, TXORITOKIETAKOA ADIBIDEZ, ERRETERIA, GIPUZKOA

Floreaga mendi hegalean. Burdin Aroko monolito eredugarria da. Monolito hori ehorzketa kolektiboetan erabiltzen zen, hildakoak erraustu ondoren. Oso inskripzio interesgarria du albo batean.

1,95 m-ko altuera, 0,95 m-ko batazbesteko zabalera eta 0,25 m-ko lodiera dituen zutikako monolito bat da, ardatz nagusiak IM-HE norabidea duena. HM-ko aurpegian gurutze bat dauka grabaturik eta IE-koan berriz, interpretatzen zaila den inskripzio bat.

Monolitoa bertako hareharrizkoa da.

<http://www.euskadi.eus/app/ondarea/arkeologia-ondarea/txoritokietako-monolitoa/menhirra/astigarraga/fichaconsulta/56874>

<https://c2.nekar.com/eu/informacion-general/?localidad=3>

<http://www.oarsoaldeaturismoa.eus/images/ezagutu-oarsoaldea/natura/docs/rutas-prehistoricas.pdf>

<http://www.aranzadi.eus/carta-megalitica-ficha?fichaid=115&lang=eu>

5. GELDIUNEA: HAMARRENA ETA SALBAZIOA. (15. ERANSKINA)

Egurrezko kutxa honek nekazariak lortutako produkzioaren irabazien hamarrena gordetzen zuen. Hamarren hau eman behar zioten urtean behin goi mailako kleroari hil ondoren beraien arimaren salbaziorako eta inpernua saihesteko.

Euskal Herrian ordea, askotan leinuetako Ahaide Nagusiak ziren hamarrenak kobratzen zituztenak beraien zirelako parrokiaren jabe.

Erdi Aroan segurtasun eza zen nagusi. Horregatik, babes pertsonala izateko era bakarra Ahaideekiko menpekotasuna zen. Eta hil ondorengoko babes berriz, Elizak ematen zuen.

Horregatik, elizari emandako hamarrenaren helburua, hil ondoren, norberaren salbazioa lortzeko zen. Emandako horren bitartez mezak ospatzen baiziren eta horrela, hildakoa inpernura joan ordez zerura joateko aukera zuen betiereko zigorra ekidinez.

Galderen proposamena:

- Zeintzuk dira Erdi Aro eta gaur egungo gizartearen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak heriotzaren inguruan?
- Zer iruditzen zaizu Erdi Aroan egiten zutena?
- Gaur egun berdina egitea posible izango litzateke?
- Nola ikusten duzu heriotzaren ondoren bizitza bermatzeko elizari ordaindu beharra?

BIGARREN SOLAIRUA

Orain bigarren solairura igoko gara. Klaustroan zehar hildakoekin erlazioan dagoen beste objektu batzuk aztertuko ditugu.

6. GELDIUNEA: DENA BELTZ (16. ERANSKINA)

Dolua, gizarte mailan heriotz baten aurrean, galera azaltzeko modua da. Herrialdeen arabera galeraren sentipena era ezberdinetan adierazi izan da. Euskal gizartearen beste zenbait ohituren artean, arropa beltza erabiliz islatu izan da.

Emakumeak beltzez janzten ziren eta, gehienez ere, bi urtez luza zitekeen dolua. Dolu zorrotzaren ondoren, dolu erdia edo arindua hazten zuten eta orduan grisa, zuria edo morea erabil zezaketen.

Gizonak bakarrik, hildakoaren gorputza etxetik kanposantura zeramatela, janzten ziren beltzez.

Denborarekin adierazpen horiek asko aldatu dira.

Informazio osagarria

Hileta-segizioa

Behin betiko hildakoa agurtu aurreko erritua da hauxe. Hildakoarekin batera etxetik, elizatik edo beilatokitik hilerrira edo errausketa-lekura joatea da denak elkarrekin edo talde txikian.

Hiletak

Hildakoaren arima salbatzea zen helburu, hau da, erlijio kristauaren arabera hilezkorra den gizakiaren atal bakarra. Aldi berean, familako kideak jasotzen dute lagunen eta inguruko elkartasuna.

Kanpaiak

Orain dela gutxi arte, kanpaiak erabiltzen ziren eguneroko bizitzan abisuak jendeari emateko. Herri bateko heriotzaren berri emateko ere erabiltzen ziren. Ez ziren berdin jotzen hildakoa haurra edo heldua, gizona edo emakumea bazen. Oraindik ere, herri txikitan kanpaiak jotzen dira baina bestela, eskelen bitartez jakinarazten da gaur egun pertsona baten heriotza. Zuen herritan jotzen al dira kanpaiak norbait hiltzean? Nolakoa da soinua? Tanntnn, hotsa da luzea eta grabea. Ez da alaia. Ezkontza bat denean ordea... dilindalan dabilta alai kanpaiak!

Dolu-bitxiak

XIX. mendean hildakoaren ilearekin eta beste material batzuekin bitxiak egiten ziren: atxabitxiarekin -garestia- edo beira eta ebotinarekin "merkeagoak". Gaur egun, ilea diamante sintetiko bihurtu daiteke prozesu kimiko bati esker.

Galderen proposamena

- Kanpaiak jotzen al dira zuen herrian norbait hiltzean?
- Nolakoa da soinua? Baxua edo altua? Luzea ala laburra? Alaia ala tristea?
- Eta nolakoa da kanpaien soinua, ezkontza batean edo bataio batean jotzen direnean?

7. GELDIUNEA: HIL ETA OIHAL (17. ERANSKINA)

XVI. mende bukaeran hildakoa janzteko ohitura sortu zen. Batzutan, jantzi erlijiosekin jantzen zen (monjearena), eta bestetan, hil-oihala erabiltzen zen hilotza honekin bilduz hil-beilan. Ibilbidearen hasieran ikusi dugu Gracia de Olazabal seroraz jantzita garaiko ohiturari jarraikiz.

Hil-oihalak lihoaz egiten ziren. Landare honen bitartez, artilearekin bezala, haria lortzen zuten emakumeek. Lan hau alargunek, ezkongabeek eta serorek egiten zuten bakarrik.

Oihal hauek egiteko erabiltzen zen aurrean dugun ehungailua. Honetarako emakumeek lihotik ateratako haria sartzen zuten eta egurrezko pieza baten bitartez, hari bakoitza bata bestearekin elkartu eta estutuz lortzen zuten hil-oihala egitea. Aldi berean, lihoarekin etxerako bestelako gauzak ere sortzen zituzten: maindire, oihal-mahai, alkandora, e.a.

Informazioa osagarria:

Etxeko oihalak xumeak izaten ziren. Ohea janzteko gaiak alde batetik brodatzen zuten bakarrik, beste aldea hormaren kontra zihoalako. Kolore askotako pieza estu eta luzeak ziren.

Hil-oihala ezinbestekoa zen arreoan, hau da, emakumea ezkontzen denean bere etxe berrira eramaten zuen arropa, altzari eta bitxi multzoa. Horretarako, emakumeari gazte-gaztetatik, baserriko lur-sailaren zati bat ematen zitzaion bertan lihoa landatu eta haz zezan, ezkondu behar zuenerako bere arrea sortu ahal izateko.

Hil-beila hil ondoren, hildakoaren etxean egiten zen eta familiako kideak, lagunak eta auzokideak joaten ziren familiarekin egotera eta errezatzerara. Gaur egun beilatokiak daude. Hil-beilan hildakoa jantzen zuten mojez edo besteela, hil-oihalarekin inguratu.

5.2.- Museoan

5.2.2.- TAILERRA

5.2.2.- TAILERRA

- **Euskal Erritualen azterketa.** Puzzlearen muntaia edo erritualen antzespina. **18. Eranskina**
- **Hilariak egitea:** asmatu prozesua. Kromoak eta posterra. **19. Eranskina**
- **Hilarría-pizza:** sortu zure hilarría. **20. Eranskina**
- **Argizaiola:** sortu zurea. **21. Eranskina**
- **Ba al zenekien?** jokoá **22. Eranskina**
- **Bizi-testamentua.** Karta-jokoá **23. Eranskina**
- **Olerkien irakurketa,** analisia eta idazketa. **24 eranskina**

5.3.- Eskolan, museora etorri ondoren

5.3. Eskolan, museora etorri ondoren.

- **Hileta-murala:** euskal hileta-objektuetatik abiatuta murala sortu. **25. Eranskina**
- **Heriotza da gai...** **26. Eranskina**

6. Bibliografía¹

BIDEGIN. SERVICIO DE APOYO AL DUELO Y ENFERMEDAD GRAVE AVANZADA. (2018)

Dolu Prozesuetan Hezkuntza Jarduerak egiteko Orientabideak. Ikastetxeetarako Gida Praktikoa.

CORTINA SELVA, M. Y A. DE LA HERRÁN GASCÓN (2011)

Pedagogía de la muerte a través del cine . Madrid: Universitas.

Este libro es el fruto de la Tesis realizada con 30 profesoras y profesores del área de Elche donde pasaron una película o escena, según las edades y registramos todo lo que los estudiantes comentaban y las reflexiones que eso produjo en los docentes.

CORTINA SELVA, M.; A. DE LA HERRÁN GASCÓN Y P. RODRÍGUEZ (2015)

Educar y vivir teniendo en cuenta la muerte . Madrid: Pirámide.

Para completar el trío de ensayos, publicamos este libro donde se ofrecen reflexiones y muchos recursos tanto filmicos como literarios. Es un libro muy ameno y muy útil.

DOLTO, F. (2005)

Parlem amb els infants (Hablemos con los niños). Barcelona: Pagès.

Este libro está formado por tres libros; uno de los cuales es -Parlar de la mort-. Esta parte del libro habla de cómo se tiene que hablar de la muerte a los niños, de cómo hablar de la muerte a aquellos que están a punto de morir, a los que han perdido las ganas de vivir y a aquellos a quién se les ha muerto un ser querido.

ESCARDÍBUL, C.; M. LÓPEZ FUSTÉ Y M. OTERO (2006)

Viure la vida, aprendre de la pèrdua

(Vivir la vida, aprender de la pérdida). Barcelona: Claret.

Libro que proporciona material y recursos para trabajar las cuestiones vinculadas a la pérdida (cambio de lugar de residencia, cambio de escuela, pérdida de la amistad, de la alegría, del primer amor, de un objeto amado, pérdida de la infancia o de la adolescencia por pasar a otras etapas de la vida...) y a la muerte con el alumnado del segundo ciclo de ESO. El material que se presenta se puede dividir en cuatro bloques: textos literarios, imágenes, casos y cine.

¹ Iturria: <http://www.marcortina.com/curso-online-material-para-compartir/>

HERRÁN, A. DE LA y otros (2000)

¿Todos los caracoles se mueren siempre? Cómo tratar la muerte en educación infantil . Madrid: Ediciones de la Torre.

Texto pionero en educación para la muerte aplicada a la Etapa Infantil.

Aportaciones:

-La consideración de la "Educación para la muerte" como un posible tema transversal de transversales como propuesta técnico-reflexiva, laica, compleja y evolucionista, desligada de toda opción doctrinaria.

- La habilitación de la muerte como contenido educativo universal y evolutivo.

- La apertura o ampliación del concepto de muerte, más allá de su acepción trágica y paliativa: momentos significativos, muerte parcial, secuencias, reciclaje, etc.

HERRÁN, A. de la y CORTINA, M. (2006)

La muerte y su didáctica. Manual para educación infantil, primaria y secundaria . Universitat.

En él se ofrece, además de una reflexión sobre la situación actual social y educativa respecto al tratamiento y la normalización de la muerte, un estudio sobre la psicología evolutiva de la idea de muerte y del período de duelo desde 0 a 16 años.

Es un Manual que ha intentado rellenar el hueco existente en cuanto a esta materia ofreciendo un listado importante de recursos para todos los niveles educativos y en todas las áreas.

JACKSON, E. (1986)

"Diálogo en el seno de la familia", en Sociología de la muerte .

Madrid: Sala.

El autor se esfuerza por entender el concepto que el niño tiene de la muerte, así como por encontrar los medios más adecuados de acercarse a la mentalidad infantil, llegando a conclusiones valiosas. Parte pues de la realidad de que el problema está más en cómo proceder que en decidir cuando empezar a hablar. Se vale el autor de algunos trabajos realizados por el Yale Child Study Institute y de los escritos de Jean Piaget. Dividiendo el trabajo en los apartados: hasta los tres años, entre los cuatro y siete años, entre los ocho y once años, en la adolescencia;

puntualiza algunos casos, para concluir con unas reglas sencillas que pueden ser utilizadas por los padres y otros adultos que tengan que abordar el problema de la muerte en el contexto de la vida del niño y las conclusiones.

KÜBLER-ROSS, E. (1992)

Los niños y la muerte . Barcelona: Luciérnaga.

La obra está basada en la década en que la doctora Elisabeth Kübler-Ross trabajó exclusivamente con niños, y ofrece a las familias de niños enfermos o ya fallecidos la ayuda y la esperanza necesarias para

sobrevivir. En un lenguaje sencillo y cálido, Kübler-Ross nos habla de los miedos, las dudas, la confusión y la angustia de aquellos padres confrontados con una enfermedad terminal o con la muerte súbita de un hijo. El cap. 5, se titula Forma natural de preparar a los niños para la vida ; el cap. 9 Cuando los niños saben que van a morir y el 10, Cómo pueden ayudar los amigos .

MÈLICH, J.C. (1989)

Situaciones-límite y educación . Barcelona: PPU.

Está basado en el estudio de la obra de Karl Jaspers (1883-1969), filósofo alemán que fue uno de los fundadores del existencialismo y cuya obra, compuesta por más de treinta libros, influyó en la teología, la psiquiatría y la filosofía del siglo XX. Mélich asegura que se hace necesario educar para la conciencia de la muerte, del sufrimiento, de la lucha y la culpabilidad, las cuatro situaciones-límite que plantea

Jaspers y que Mèlich desarrolla y analiza como finalidades educativas.

POCH, C. y O. HERRERO (2003).

La muerte y el duelo en el contexto educativo . Barcelona: Paidós.

Las autoras proponen un recorrido de reflexión y de posibles respuestas a los siguientes interrogantes:

- ¿Cómo afecta a la educación la "sutil discreción" existente en torno a la muerte y al hecho de morir?
- ¿Por qué nos planteamos "educar para la muerte"? ¿Y para qué?
- ¿Cómo explicar a los niños la experiencia de la muerte y hacer frente a sus preguntas?
- ¿Cómo se trata la muerte en los currículos educativos?
- ¿Cómo dar la noticia de la muerte de un ser querido para él a un niño o a un adolescente?
- ¿Cómo elaboran el duelo los niños, los adolescentes y los adultos, tras la muerte de un ser querido?

SAN TELMO MUSEOA-DONOSTIA KULTURA (2002)

Hilarriak Biribilketan. Espiritualtasunaren aztarnak Europako Arku Atlantikoan. Irakaslearen gida. Culture 2000.

Bizitzaz beterik, heriotzaz aserik. Donostia Kultura, San Telmo Museoa, 2001.

ONDORENGO ESTEKAK:

<http://www.euskonews.eus/0008zbk/gaia0801es.html>

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/jgl/37001068.pdf>

<http://www.etniker.com/publicaciones/ritos-funerarios-en-vasconia/>

https://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=119&Itemid=30&lang=es&idn=64865

